

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Pikoketan

DARION ESNEA eta bere hazi oparotasuna tarteko, pikondoa ugalkortasunarekin lotu etaernal-iturritzat jotzera bideratu zuen. Txadeko kotoko herrian pikondoa inausteak antzutasuna dakarrela diote; bertako emakumeek, aldiz, esne-jariatzea handitze-ko azala ebaki eta bertako izerdi-esnea biltzen dute. Afrikan bertan iparrerago, pikoa, ugalkortasuna eta barrabila hitz berak adierazten ditu; pikoa aitatu nahi dutenean, lotsaz nonbait, fruitu hau heltzen den sasoia esaten dute. Dionisos, haragikeria eta lizunkeriaren jainkoa zenari eskaintzen zioten pikondoa grekoek. Horienaren aldean zaharrak izango dira pikondoak Asian dituen izenak.

Indiako Bodh Gaian, Mahabodhi tenpluan, orain dela 2.542 urte Buda zenari bere erlijio bidea abiarazi zion “joanaldia” pikoaren generoko zuhaitz baten azpian gertatua omen da; “esnatzearen zuhaitza” deitzen diote. Hori dela eta, espezie honi sakratutasuna jasotzen duen deitura eman zaio: *Ficus religiosa*. Galdu den aldi bakoitzean haren aldaxkatik sortutako berri bat landatu izan dute bertan. Hainbeste urte eta gero, egungoa laugarrena dela diote haren zaintzaileek, 110 urtekoa. Adarrak zabaldu ahala hauek

lurrerainoko sustraiak luzatu eta, sustraiak habe, ikaragarri hedatzen da, 700 metro bai. Budaren ondorengo hinduentzat Visnu eta Shivaren arbola da, eta sugeak bezala ernatze indarra irudikatzen duenez elkarrekin gurtzen dituzte. Espezie berekoa da Sri Lankan, Anuradhapuram, Bodhitaru edo jakituriaren arbola deitzen dutena. Bertako budistek diotenez, Asoka enperadorearen emazteak, hark zuhaitzari zion debozionearekin bekaizti, Budaren “esnatzearen zuhaitza” epaitu eta eraitsarazi zuenean, bien alaba Theri Sangamitak ezkutuan ekarritako hazi batetik sortutakoa da zuhaitzgar hau. Ereite data ezaguna duen zuhaitzik zaharrena da, 2.296 urte ditu.



Pago-hesia. Garai batean tokian bertan bizi ohi ziren landareekin sortzen ziren hesiak. Gaur egun, hesiak itxituratarako baino estetika soilagatik gehiago erabiltzen dira. Motz ibiltzen gara, ordea, hesia zein landareekin egin

erabakitzerakoan, ia edozein landare egokia dela jabetu gabe: hagina, gorostia, elorriak, astigarrrak... Hona Zeraingo Ostatuko enparantzako hesia: pagoa (*fagus sylvatica*). Urtaroen arabera nola aldatuko den pentsa!



Artaburua: Jatorri amerikarrek *Zea mays* espezieko landarearen fruitua. Lore emeatatik sortutako ale multzoa da. Ernalduko duen polen alea jasotzeko eme horietako bakoitzaren mutur luzean sortak bizarra osatzen du. Emea delako izango du buru honek halako bizar sarria. Besterik ezean, bizar hori pipatu izan da.

Fruitu askorik emango ez duen burua duena, maiz egungo iparamerikar ereduari jarraiki jantzia, ala erantzia?